

**ERABAKIA, 2022ko URRIAREN 14koa, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ LUZATU EGITEN BAITA IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO BEHARRAK BETETZEKO IZANGAIK LAN POLTSA BERRIETAN SARTZEKO DEIALDI PUBLIKOAREN ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA, 2022ko IRAILAREN 26ko ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZENA.**

---

Gertakari hauek egiaztatu dira:

### GERTAKARIAK

**Lehenengoa.-** UPV/EHUko errektorearen 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleak ordezkatzeko beharrak betetzeko hautagaien lan poltza berrietan sartzeko, eta eskabideak aurkezteko epea 2022ko urriaren 17a ezarri zen, egun hori barne.

**Bigarrena.-** Kontsulta ugari jaso dira deialdiari dagozkion gaiei buruz. Era berean, zenbait gorabehera tekniko eta moteltze arazo ikusi dira instantziak aurkezteko prestatutako aplikazio informatikoan.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.-** Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena otsailaren 12ko EHAA); UPV/EHUko irakasleak ordezkatzeko beharrak betetzeko izangaien zerrenda egiteko eta kudeatzeko araudia, eta 2022ko irailaren 26ko Erabakia, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baitzen irakasleak ordezkatzeko beharrak betetzeko izangaiak lan poltza berrietan sartzeko, eta gainerako arau orokorrak eta horiekin bat datozenak.

**Bigarrena.-** Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak emandako ahalmenak direla bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia) (otsailaren 12ko EHAA).

**Hirugarrena.-** Moteltze arazoak eta instantziak aurkezteko prestatutako aplikazio informatikoaren sistemetan gorabehera teknikoak izan direla egiaztatu da, eta horiek eskatzaileei egotzi ezin zaizkien eragozpen bidegabeak sortu dituztenez, komeni da instantziak aurkezteko epea luzatzea.

Adierazitakoagatik, honako hau

## ERABAKI DUT

**Lehenengoa.**- UPV/EHUko errektorearen 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez deitutako lan poltsa berrietan sartzeko deialdi publikoaren eskabideak aurkezteko epea **2022ko urriaren 24ra arte** luzatzea, egun hori barne.

**Bigarrena.**- Erabaki hau UPV/EHUren webgunean eta Irakasle-ikertzaileen Ataleko iragarki taulan argitaratzea.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioa, 2022ko urriaren 14a.

## ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta: Irakasle-ikertzaileen errektoreordea

Sin.: Federico Recart Barañano